## 2020-12-04 UDAL BATZARRA

**Bat egitea 2020ko Euskararen Nazioarteko Egunaren Deklarazioarekin.**

Eudelek 2020ko Euskararen Nazioarteko Egunaren Deklarazioaren harira igorritako testuaren berri ematen da.

Ondorioz, kontuan hartuta 2020ko azaroaren 23ko Erakunde, Lurralde eta Lege gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena,

Udal Osoko bilkurak honako erabakia hartu du

**ERABAKIA**

BAT EGITEA 2020ko Euskararen Nazioarteko Egunaren Deklarazioarekin eta honako testu hau ONARTZEA:

## 4-12-2020 PLENO MUNICIPAL

**Adhesión a la Declaración del Día Internacional del Euskera de 2020.**

Se da cuenta texto remitido por Eudel de Declaración del día Internacional del euskera de 2020.

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales de fecha 23 de noviembre de 2020,

El Pleno Municipal adopta el siguiente

**ACUERDO**

ADHERIRSE a la Declaración del Día Internacional del Euskera 2020 y APROBAR el siguiente texto:

**DECLARACIÓN**

## 2020KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA

### Euskara, aurrerabide

### Gizartea euskaraz biziberritzea helburu

Inoiz inork pentsatuko ez zukeen eran jo gaitu gaitzak. Beste horrenbeste, gaitzaren ondorioek. Mundu osoa, gizarte guztiak, egitura guztiak, pertsona guztiok jarri gaitu geure benetako neurriaren aurrean, buruz buru. Kupidarik gabe utzi du agerian ahaztu nahi genukeen zerbait: zaurgarriak gara; zaurituta gaude.

Erantzukizunaren bidetik heldu diogu erronkari, denon indarrak batuz. Bai baitakigu ez dagoela beste irtenbiderik. Euskararen hiztun elkarteak ere sufritu du pandemiaren eragina, bereziki erabilera mailan. Zentzu horretan, erakunde publikoen konpromisoa sendoa eta egindako lana handia izanagatik ere, ezin izan diogu nahi bezala erantzun.

Euskaldunok, baina, ezin dugu ahaztu badela funtsezko ekarpen bat, gizarte-ahalegin itzel eta miresgarri horren osagai ezinbestekoa eta geure esku soilik dagoena: euskaraz egin behar diogu aurre mundu mailako krisiari; euskaraz egin behar dugu ilunpetik argira eramango

## DEL DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA DE 2020

### El euskera nos hace avanzar

### Revitalicemos nuestra sociedad en euskera

La pandemia nos ha golpeado como jamás nadie hubiera podido pensar. Al igual que sus consecuencias. Nos ha emplazado a constatar nuestra verdadera medida, frente a frente, a todas las sociedades, a todas las estructuras, a todas y cada una de las personas. Ha puesto de manifiesto, sin la menor clemencia, algo que preferiríamos olvidar: somos vulnerables; estamos heridos.

Para afrontar el reto, hemos recurrido a la responsabilidad, hemos unido nuestras fuerzas. Porque sabíamos que esa era la única manera de hacerlo. La comunidad de hablantes de euskera también ha sufrido la influencia de la pandemia, especialmente a nivel de uso. Y por grande que sea el compromiso y el trabajo realizado por las instituciones públicas, no hemos podido responderle como hubiéramos deseado.

Pero los y las euskaldunes no podemos hacer abstracción de un componente ineludible de ese inmenso y admirable esfuerzo social, de un componente que depende únicamente de nosotros y nosotras: debemos hacer frente en euskera a la crisis mundial; debemos

gaituen bidea; euskaraz sendatuko gara, euskaraz sendatuko dugu geure gizartea; euskaraz besarkatuko ditugu mundu osoko gizakiak. Bat garelako. Euskaraz bat mundu osoarekin.

recorrer en euskera el camino que ha de conducirnos desde las tinieblas a la luz; sanaremos en euskera, en euskera curaremos a nuestra sociedad; abrazaremos en euskera a toda la humanidad. Porque somos uno. Porque el euskera nos une al mundo.

Horixe da euskaldunok –neurri batean edo bestean euskaraz bizi garen munduko herritarrok, alegia– euskara gero eta gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiliz giza garapenari egiten diogun ekarria. Gizarte kudeaketa aurreratuari gaineratzen diogun balio erantsia.

Esa es la aportación que los y las euskaldunes –es decir, aquellos ciudadanos y ciudadanas del mundo que, en una u otra medida, vivimos en euskera– hacemos al desarrollo humano usando el euskera más, con más y en más ocasiones. He ahí el valor añadido que aportamos a la gestión social avanzada.

Banaka heltzen diogu, jakina, euskaraz gero eta gehiago bizitzeko konpromisoari. Nahitaezko zutabea baita norberaren eginahal hori edozein aurrerabidetan, oso bereziki gizarte prozesu konplexuetan, eta horixe da euskara biziberritzea helburu duena ere: gizarte prozesu konplexu bat, ertz eta osagai ugari duena.

Adoptamos de manera individual, claro está, el compromiso de vivir cada vez más en euskera. Porque ese esfuerzo personal es el pilar fundamental de cualquier progreso, de manera muy especial en los procesos sociales más complejos, y el que conduce a la revitalización del euskera es exactamente eso: un proceso social complejo, con multitud de aristas y facetas.

Ongi asko dakigu hori mundu osoko euskaldunok.

Badakigu, besteak beste, euskaldunok euskararen hiztun elkartea osatzen dugula, eta Euskaraldian norberaren erabakimenetik abiatzen dela euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzerakoan inguruan hainbatetan sortzen zaizkigun oztopoak gainditzeko bulkada.

Baina badakigu, era berean, ezinbestekoa dugula elkarrengana biltzen gaituen bulkada ere. Norabide biko bektorea baita euskara eta euskaldunok lotzen gaituena: euskarak herri egiten gaitu; euskal hiztunon komunitateak egiten du euskara orainaren eta etorkizunaren hizkuntza.

Bide horretatik heldu zaizkio beti euskarari aurrerapauso behinenak: norberaren eta gizartearen konpromisoak sendo uztartzetik; unean uneko beharrizanei euskaraz erantzuteko erabaki sendotik; etorkizunerako bidea euskaraz zolatzeko euskal instituzioek, gizarteak eta gutariko bakoitzak egindakotik.

Euskaraldiak eskaintzen digu aurten berriz ere zailtasunak aukera bilakatzeko

Bien lo sabemos los y las euskaldunes de todo el mundo.

Sabemos, entre otras cosas, que los y las euskaldunes formamos una comunidad de hablantes, y que en Euskaraldia el impulso que parte de la voluntad individual es el motor para superar los obstáculos que van surgiendo a nuestro alrededor a la hora de utilizar el euskera más, con más gente y en más ocasiones.

Pero sabemos también que nos es imprescindible agruparnos. Porque el vector que vincula entre sí al euskera y los y las euskaldunes se proyecta en un doble sentido: el euskera hace de nosotros un pueblo; la comunidad euskaldun hace del euskera una lengua de presente y de futuro.

Los más señalados avances del euskera han provenido siempre del mismo principio: de una estrecha relación entre compromiso personal y social; de la sólida decisión de responder en euskera a las necesidades de cada momento; de la labor de las instituciones y sociedad vascas y de cada uno de nosotros y nosotras en el empeño común de lograr que el euskera sirva de pavimento al camino hacia el futuro.

Euskaraldia nos ofrece de nuevo este año la ocasión y el instrumento necesario para

abagunea, krisia aukera bihurtzeko lanabesa. Ingurumari aldrebesean dator, ezbairik gabe, aurtengoa, eta horrek areagotu egingo du guztion eta bakoitzaren konpromisoaren balioa, administrazio eta erakunde publikoena barne.

hacer de la dificultad y la crisis una oportunidad. La edición del presente año llega, ciertamente, en un contexto complicado, y ello no hará sino acrecentar el valor del compromiso de todos y cada uno de nosotros y nosotras, incluido el de las administraciones e instituciones públicas.

Aurtengoan, balio berezi batez apainduko da ahoa bizi, belarria prest eta bihotza kartsu dugun guztion ekimena. Aurtengoan, inoiz baino erabakigarriagoa izango da euskararekiko gertutasunezko keinu praktiko oro, euskal hiztunongandik zein euskararen zabalkundean erdaretatik lagundu nahi dutenengandik datorrela ere.

En la edición del presente año, adquirirá especial valía la labor de todas aquellas personas dispuestas a ofrecer su euskera con entusiasmo y a aceptar de buen grado el euskera que se les ofrece. Este año será más decisivo que nunca cualquier gesto práctico de cercanía con el euskera, tanto si proviene de quienes pueden hablar euskera como de quienes, desde otras lenguas, desean contribuir a la difusión del euskera.

Esanahi berezi batez jantziko da aurten, ezinbestez, euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzeko ahalegina: egokitu zaigun ataka larritik ateratzeko erabakiari, euskaraz ateratzearen ezinbestekotasuna erantsiko diogu euskal hiztun nahiz euskararen lagun orok.

El esfuerzo por usar el euskera más, con más y en más ocasiones se revestirá este año de un especial significado: a nuestra decisión de superar la grave situación que atravesamos, todos y todas los vascohablantes y amigos del euskera le añadiremos la determinación de salir adelante en euskera.

Izan ere, bagenekien euskaraz zetorrela geroa, euskaraz ere mintzo dela etorkizuna, eta aurten beste zerbait ikasi dugu: egoera zailetatik ateratzeko eginahalean lagungarri dugu euskara, bidelagun ezinbestekoa. Krisialditik sendoago ateratzea helburu dugun honetan, erabil dezagun euskara ere aurrera egiteko lanabes gisa.

Euskaraz biziberritu behar dugulako
geure gizartea.
Euskararen ahotsa zor diogulako
munduari.
Euskaraz garelako munduko herritar.

Euskara aurrerabidea delako.

**Pertsonatzea PROMOCIONES CESILUR SL sozietateak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia - Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean jarritako 951/2020 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan, 112.01 Sostoatarren 14. jarduketa isolatuaren Xehetasun Azterlanaren behin betiko onartzeari buruzko 2020-7-27ko Udal Osoko Bilkuraren erabakiaren aurka.**

Ikusi da Euskal Autonomia Erkidegoko

En efecto, sabíamos ya que el futuro venía en euskera, que el futuro habla también en euskera, y este año hemos aprendido algo más: el euskera, necesario compañero de camino, nos ayuda en nuestro esfuerzo por superar las dificultades. Si nos hemos propuesto salir reforzados de la crisis, el euskera nos ofrece una excelente herramienta para ello.

Porque debemos revitalizar nuestra sociedad en euskera.
Porque debemos al mundo la voz del euskera.
Porque usar el euskera es nuestra manera de ser ciudadanos y ciudadanas del mundo.
Porque el euskera nos hace avanzar.

**Personación en recurso contencioso 951/2020 interpuesto ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco - Sala de lo Contencioso Administrativo por PROMOCIONES CESILUR, S.L. contra acuerdo del Pleno Municipal de 27-7-2020 sobre la aprobación definitiva del Estudio de Detalle de la actuación aislada 112.01 Sostoatarren nº 14.**

Visto el oficio del Tribunal Superior de

Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak Udal honi igorritako ofizioa. Ofizio horren bidez, espedientea eskatu eta Udal honi dei egiten zaio PROMOCIONES CESILUR, SL-k 2020ko uztailaren 27ko Udal Osoko Bilkurak 112.01ren jarduketa isolatuaren Xehetasun Azterlana behin betiko onartzeari buruz hartutako erabakiaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoan, prozedura arruntean.

Justicia del País Vasco, Sala de lo contencioso-Administrativo, remitido a este Ayuntamiento, por el que se interesa el expediente y se emplaza a este Ayuntamiento en recurso contencioso administrativo procedimiento ordinario nº 915/2020, interpuesto por PROMOCIONES CESILUR, S.L. contra acuerdo de Pleno Municipal de 27 de julio de 2020 sobre la aprobación definitiva del Estudio de Detalle de la actuación aislada 112.01 Sostoatarren nº 14.

Ondorioz, kontuan hartuta 2020ko azaroaren 23ko Erakunde, Lurralde eta Lege gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena,

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales de fecha 23 de noviembre de 2020,

Udal Osoko bilkurak honako erabakia hartu du

El Pleno Municipal adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Lehena.-** Erreferentziazko administrazio-espedientea bidaltzea.

**Primero.-** La remisión del expediente administrativo de referencia.

**Bigarrena.-** Udala 915/2020 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan, prozedura arruntean, pertsonatzea, eta Alejandro Castro Ubetagoiena jauna izendatzea letradu defendatzaile, Mª Luisa Linares Farias eta Saioa Etxabe Azkue Donostiako prokuradoreekin eta Begoña Fernández de Gamboa Iragorri eta Yolanda Kortajarena Martínez, Bilbokoekin batera, zeinen alde auzitarako botere orokorrak dituen esleituak Udal honek.

**Segundo.-** Personarse el Ayuntamiento en recurso contencioso administrativo 915/2020, procedimiento ordinario, y designar como letrado defensor a D. Alejandro Castro Ubetagoiena, que podrá servirse de las Procuradoras Dña. Mª Luisa Linares Farias y Dña. Saioa Etxabe Azkue de San Sebastián y Dña. Begoña Fernández de Gamboa Iragorri y Dña. Yolanda Cortajarena Martínez, de Bilbao, a favor de las cuales este Ayuntamiento tiene otorgados poderes generales para pleitos.

**Hirugarrena.-** Jasota uztea Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren 29/98 Legearen 49. artikuluaren ondorioetarako, ezen errekurtsogileaz gain, interesdunak direla baita ere JESUSA ODRIOZOLA AGUIRREBEÑA eta PEDRO MATA GARATE jaun-andreak, eta horiei ere dei egiten zaiela errekurtsoan aurkez daitezen.

**Tercero.-** Hacer constar, a los efectos del artículo 49 de la Ley 29/98 de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, que aparecen como interesados/as, además de la recurrente, DÑA. JESUSA ODRIOZOLA AGUIRREBEÑA y D. PEDRO MATA GARATE a quienes se le emplazará para que puedan personarse en el recurso.

**Laugarrena.-** Azaltzea ez dagoela beste inongo administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkatutako administrazio-jarduerarekin loturik.

**Cuarto.-** Informar que no existen recursos contencioso-administrativos en relación con la actuación administrativa impugnada.

**Eibarko hirian ibilgailuen aparkamendu-denbora mugatua arautzeko Ordenantza aldatzeko hasierako proposamena.**

**Propuesta de modificación inicial de la Ordenanza Reguladora del aparcamiento limitado en el tiempo de vehículos en la Ciudad de Eibar.**

Eibarko hirian ibilgailuen aparkamendu-denbora mugatua arautzen duen ordenantza aldatzeko proposamenaren testuaren berri ematen da, bai eta udaltzainburuak eta idazkari nagusiak egindako txostenen berri ere.

Se da cuenta del texto de propuesta de modificación de la Ordenanza reguladora del aparcamiento limitado en el tiempo de vehículos en la Ciudad de Eibar, así como así como de los informes emitidos por el Jefe de la Policía Local y por el Secretario General.

Ondorioz, kontuan hartuta 2020ko azaroaren 23ko Erakunde, Lurralde eta Lege gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena,

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales de fecha 23 de noviembre de 2020,

Udal Osoko bilkurak honako erabakia hartu du

El Pleno Municipal adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Lehena.** Eibarko hirian ibilgailuen aparka-

**Primero**. Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza Reguladora del

mendu denbora-mugatua arautzeko Ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ematea.

aparcamiento limitado en el tiempo de vehículos en la Ciudad de Eibar.

Aldaketa horrek dakar Isasi kalea 2., 3. eta 4. artikuluetan araututako guneetan sartzea; aldaketaren ondoren, artikuluak horrela geratuko dira:

Dicha modificación supone incluir la calle Isasi en las zonas reguladas en los artículos 2º, 3º y 4º; quedando la redacción de dichos artículos, tras la modificación, como sigue:

2. artikulua: Aplikazio eremua.

Ordenantza hau aplikatuko da Toribio Etxebarria kaleko aparkalekuan; Isasi kaleko aparkalekuetan, kalearen bi aldeetan Jose Antonio Gisasolarekiko eta Makazkuarekiko bidegurutzeen arteko zatian; San Juan kalearen ezkerreko aldeko aparkalekuan -DO-BI norantza- eta Bidebarrieta kalearen ezkerreko aldeko aparkalekuan -BI-DO norantza-; baita Udal osoko bilkurak zehaztu ditzakeen beste leku batzuetan ere.

Artículo 2º: Ámbito de aplicación.

La presente Ordenanza se aplicará al aparcamiento de vehículos en la calle Toribio Etxebarria; estacionamientos de la calle Isasi, a ambos lados de dicha calle en el tramo comprendido entre la confluencia con Jose Antonio Gisasola y Makazkua; estacionamientos del lado izquierdo de la calle San Juan –sentido SS-BI-, y estacionamientos del lado izquierdo de la calle Bidebarrieta –sentido BI-SS, y demás zonas que el Ayuntamiento en Pleno determine.

3. artikulua: Aparkaldi mugatuaren ordutegiak eta egunak.

1.- Aparkaldi mugatua Toribio Etxebarria kalean:

Lanegunetan izango da aparkaldi mugatua, astelehenetik larunbatera. Ordutegia: 7:45-13:00. Arratsaldeko ordu 1etik (13:00) hurrengo eguneko goizeko 7:45ak arte (7:45)

Artículo 3º: Horarios y fechas en las que regirá la limitación de aparcamiento.

1.- Limitación en la calle Toribio Etxebarria:

La limitación regirá los días laborales de lunes a sábado de 7:45-13:00 h. De 13:00 a 7:45 h de la mañana siguiente se peatonalizará toda la calle, debiendo quedar toda

kale osoa izango da oinezkoen alderdi. Beraz, ordu-tarte horretan ez da ibilgailu bat bera ere egongo eta debekatuta egongo da aparkatzea (13:00-7:45).

Igandeetan eta jaiegunetan ez da aparkatzen utziko oinezkoen kale bat delako.

2.- Aparkaldi mugatua Isasi kalean (bi aldeak Jose Antonio Gisasolarekiko eta Makazkuarekiko bidegurutzeen arteko zatian), eta San Juan eta Bidebarrieta kaleen ezkerreko aldea:

Lanegunetan izango da aparkaldi mugatua astelehenetik ostiralera goizeko 9etatik iluntzeko 8ak arte (9:00-20:00) eta zapatuetan goizeko 9etatik eguerdiko ordu 1ak arte (09:00-13:00).

Ordutegi hori Alkatetzaren Dekretuz aldatu edo luzatu daiteke (segurtasun arrazoiak, obrak, interes publikoak hala eskatzen duelako, kultura-ekitaldiak daudelako, kirol ikuskizunak…).

4. artikulua: Aparkaldiaren iraupena.

1.- Toribio Etxebarria kalea: Gehienez ere ordu 2ko aparkaldia. Ibilgailuek ezingo dute aparkatu eguerdiko ordu bietatik aurrera

la zona desocupada de vehículos, quedando prohibido el estacionamiento en ese tramo horario (13:00 h-7:45 h).

Los domingos y festivos no se permitirá el estacionamiento al ser una calle peatonal.

2.- Limitación calle Isasi (ambos lados entre la confluencia con Jose Antonio Gisasola y Makazkua), y lado izquierdo de las calles San Juan y Bidebarrieta:

La limitación horaria regirá los días laborales de lunes a viernes de 09:00 a 20:00 horas y los sábados no festivos de 09:00 a 13:00 horas.

3.- Por Decreto de Alcaldía podrá modificarse o ampliarse el citado horario por razones de seguridad, obras o interés público, actos culturales, deportivos, etc.

Artículo 4º: Limitación de la duración de aparcamiento

1.- Calle Toribio Etxebaarria: Regirá la limitación de un máximo de 2 horas junto con la imposibilidad de que los vehículos están

(14:00), ordu horretatik aurrera oinezkoen eremu baita. 13:00etatik aurrera (astelehenetik zapatura) ez da ibilgailu bat bera ere han aparkatuta egongo eta kale hori oinezkoena izango da.

estacionados a partir de las 14:00 h, momento en el que se peatonalizará la zona. A partir de las 13:00 h (de lunes a sábado), la zona deberá estar totalmente desocupada de vehículos teniendo la consideración de zona peatonal.

2.- Isasi kalean (bi aldeak Jose Antonio Gisasolarekiko eta Makazkuarekiko bidegurutzeen arteko zatian), eta San Juan eta Bidebarrieta kaleen ezkerreko aldea: Gehienez ere ordu 2ko aparkaldia izango dute.

2.- Calle Isasi (ambos lados entre la confluencia con Jose Antonio Gisasola y Makazkua), y lado izquierdo calles San Juan y Bidebarrieta: Regirá la limitación de un máximo de 2 horas.

3.- Erabilera-ordutegi ezberdinak izan arren lau kaleak gune bakar batean sartuta egongo dira; ondorioz, kale horietako edozeinetan aparkatzeko txartela ateraz gero, ezingo da beste txartel berri bat atera ibilgailu berarentzako aurreneko txartela eskuratu eta 4 ordu igaro arte.

3.- Aun teniendo horarios de usos distintos las cuatro calles estarán incluidas en una única zona, esto supondrá que una vez sacado el ticket de estacionamiento en cualquiera de ellas no se podrá volver a sacar un nuevo ticket para el mismo vehículo en cualquiera de las calles hasta que no transcurran 4 horas de la impresión del primero.

**Bigarrena.** Espedientea jendaurrean uztea 30 egunez, egin nahi diren iradokizunak aurkeztu daitezen. Jendaurreko informazio-izapide edo tramite hori jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan nahiz web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

**Segundo**. Someter el expediente a información pública por un plazo de 30 días para la formulación de las observaciones que se estimen oportunas. El trámite de información pública se dará a conocer mediante anuncio en el tablón de edictos y página web del Ayuntamiento, y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**Hirugarrena.** Alegaziorik aurkezten ez bada, Eibar Hirian ibilgailuen denboran aparkaleku mugatua arautzen duen Ordenantza behin betiko onartutzat joko da; ez

**Tercero**. De no presentarse alegaciones, la Ordenanza reguladora del aparcamiento limitado en el tiempo de vehículos en la Ciudad de Eibar se considerará

da beharrezkoa izango berariazko erabaki berri bat hartzea, baina indarrean jartzeko, testu osoa argitaratu beharko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

aprobada definitivamente sin necesidad de un nuevo acuerdo expreso, si bien para su entrada en vigor deberá publicarse el texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**Hasierako onarpena emateko proposamena, hiri izaerako bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantzari.**

**Propuesta de modificación inicial de la Ordenanza municipal reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad en las vías públicas de carácter urbano.**

Hiri izaerako bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantzaren aldaketa-proposamenaren testuaren berri ematen da, bai eta udaltzainburuak eta idazkari nagusiak egindako txostenen berri ere.

Se da cuenta del texto de propuesta de modificación de la Ordenanza reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad en las vías públicas de carácter urbano, así como de los informes emitidos por el Jefe de la Policía Local y por el Secretario General.

Ondorioz, kontuan hartuta 2020ko azaroaren 23ko Erakunde, Lurralde eta Lege gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena,

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales de fecha 23 de noviembre de 2020,

Udal Osoko bilkurak honako erabakia hartu du

El Pleno Municipal adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Lehena.** Hiri izaerako bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ematea.

**Primero**. Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza municipal reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad en las vías públicas de carácter urbano.

Aldaketa hori 16. artikuluaren 1. atalaren idazketan jasotzen da; aipatutako puntua honela geratzen da, aldaketa egin ondoren:

Dicha modificación se concreta en la nueva redacción del apartado 1 del artículo 16 , quedando la redacción de dicho punto, tras la modificación, como sigue:

“16.1. Herri barruan, gehieneko abiadura 30 km/h-koa izango da, beste zerbait dioen seinalerik izan ezean.”

“16.1 La velocidad máxima en el casco urbano será de 30 km/h. salvo señalización en otro sentido.”

**Bigarrena.** Espedientea jendaurrean uztea 30 egunez, egin nahi diren iradokizunak aurkeztu daitezen. Jendaurreko informazio-izapide edo tramite hori jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan nahiz web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

**Segundo**. Someter el expediente a información pública por un plazo de 30 días para la formulación de las observaciones que se estimen oportunas. El trámite de información pública se dará a conocer mediante anuncio en el tablón de edictos y página web del Ayuntamiento, y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**Hirugarrena.** Alegaziorik aurkezten ez

**Tercero**. De no presentarse alegaciones,

bada, Hiri izaerako bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantza behin betiko onartutzat joko da; ez da beharrezkoa izango berariazko erabaki berri bat hartzea, baina indarrean jartzeko, testu osoa argitaratu beharko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

la modificación de la Ordenanza municipal reguladora de los usos, tráfico, circulación y seguridad en las vías públicas de carácter urbano se considerará aprobada definitivamente sin necesidad de un nuevo acuerdo expreso, si bien para su entrada en vigor deberá publicarse el texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Bidaiarien herri barruko garraio-zerbitzuaren (UDALBUS) emakidarako espedientea onartzeko proposamena.

Propuesta de aprobación del expediente para la concesión del “servicio de transporte urbano de viajeros (udalbús) en el término municipal de Eibar”

Espedienteari atxiki zaizkion dokumentuak ikusita

Vistos los documentos que acompañan al expediente

Ondorioz, kontuan hartuta 2020ko azaroaren 23ko  Ogasun eta Ondarearen Lan Batzordearen aldeko irizpena.

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Hacienda y Patrimonio, de 23 de noviembre de 2020.

Udal Osoko bilkurak honako erabakia hartu du

El Pleno Municipal adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Lehena:** Goian adierazitako kontratazio-rako (prozedura irekiz) espedientea onartzea, zeinak honako dokumentazio hau biltzen duen:

- Ustiapen-proiektua, kontratuaren Justifikazio Memoria eta Azterlan Ekonomikoa barne.
- Kontratuaren baldintza teknikoen agiria
- Kontratua arautuko duten administrazio baldintza berezien agiria, zeinak ez duen aurreikusten loteetan adjudikatzea.

**Bigarrena:** Gastu iraunkorra eta segidako traktuko gastua denez, organo eskudunak konpromisoa hartzen du etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan dagozkion kredituak erreserbatzeko, enpresa esleipendunarekin hartutako betebeharraren ondorioz eragiten zaionean.

**Hirugarrena:** Adjudikazio-prozedurari hasiera ematea

**Laugarrena:** Javier Ziaran izendatzea kontratuaren zuzendari (Udaltzaingoaren burua)

**Primero:** Aprobar el expediente para la contratación en la cabecera indicada por procedimiento abierto, que incluye la documentación que a continuación se indica:

- Proyecto de explotación de la obra que incluye la Memoria justificativa del contrato y el Estudio Económico.
- Pliego de cláusulas técnicas del contrato
- Pliego de cláusulas administrativas particulares que habrá de regir el contrato, que no prevé su adjudicación en lotes

**Segundo**: Disponer que, por tratarse de un gasto permanente y de tracto sucesivo, el órgano competente se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados de resultas de la obligación contraída con la empresa adjudicataria

**Tercero**: Disponer la apertura del procedimiento de adjudicación

**Cuarto**: Nombrar Director del contrato a Javier Ziarán (Jefe de la Policía Municipal)

**Bosgarrena:** Pertsona hauek izendatzea Kontratazio Mahaikide:

**PRESIDENTEA:**

Ana Tellería (Ogasunaren Aholku Batzordearen presidentea)

- *Presidentearen ordezkoa: Alberto Albístegui (lehen alkateordea).*

**BOKALAK:**

David García (Udal kontu-hartzailea)

Juan Agustín Villafranca (Udal idazkaria)

Javier Ziarán (Udaltzaingoaren burua)

**IDAZKARIA:**

Enrique Errasti (Kontratazioak eta Diru-laguntzak Unitatearen zuzendaria).

**Seigarrena:** Espediente honetan Udalbatzak dituen kontratu-eskumenak Alkatea-

**Quinto**: Nombrar a las siguientes personas como miembros de la Mesa de Contratación:

**PRESIDENTE**

Ana Tellería (Presidenta de la Comisión Asesora de Hacienda)

- *Suplente del Presidente: Alberto Albístegui (Primer Teniente de Alcalde)*

**VOCALES**

David García (Interventor Municipal)

Juan Agustín Villafranca (Secretario Municipal)

Javier Ziarán (Jefe de la Policía Municipal)

**SECRETARIO**

Enrique Errasti (Director de la Unidad de Contratación y Subvenciones)

**Sexto**: DELEGAR en el Alcalde las competencias contractuales que en este expediente ostenta en Pleno Municipal, en

ren ESKU UZTEA, kontratazioaren kudeaketan eta haren gorabeheretan arintasun handiagoa lortzeko, SPKLaren 61.2. artikuluan ezarritakoarekin bat.

orden a conseguir una mayor agilidad en la gestión de la contratación y sus incidencias, de conformidad con lo establecido en el artículo 61.2 de la LCSP.

Euskal Herriko Udako Unibertsitateko eskabidea, Isasi-Markeskoa Jauregiaren erabilera-lagapenaren Hitzarmena beste 5 urtez luzatzeko.

Solicitud de la Universidad Vasca de Verano (UEU) para la prolongación del Convenio de cesión de uso del Palacio Isasi-Markeskoa por 5 años más.

2000ko azaroaren 28an Isasi-Markeskua Jauregiaren erabilera-lagapenaren Hitzarmena sinatu zen Euskal Herriko Udako Unibertsitatearen eta Eibarko Udalaren artean, eta Udalbatzaren erabakiz 2015eko azaroaren 13an erabaki zen hitzarmen hori 2020ko azaroaren 28ra arte luzatzea.

El 28 de noviembre de 2000 se firmó el convenio entre la Universidad Vasca de Verano y el Ayuntamiento de Eibar de cesión de uso del Palacio Isasi-Markeskua y, por acuerdo del Pleno municipal, de 13 de noviembre de 2015, se acordó prorrogar dicho convenio hasta el 28 de noviembre de 2020.

Hitzarmenaren bigarren klausularen arabera, “lagapena hamar urterako da, baina bost urtetik bost urtera luza daiteke 25 urteko gehieneko epera, bi aldeak ados egonez gero”.

Ikusita Euskara Saileko zuzendari andrearen txostena, 2020ko azaroaren 10ekoa, hitzarmenaren luzapenaren aldekoa.

Ikusita Idazkaritzaren 2020ko azaroaren 11ko txostena.

Conforme a la segunda cláusula del convenio “la cesión es por diez años, pero puede prorrogarse de cinco en cinco años hasta un máximo de 25 si existiera conformidad por ambas partes”.

Visto el informe de la Sra. Directora del Área de Euskara, de 10 de noviembre de 2020, favorable a la prórroga de dicho convenio.

Visto el informe de Secretaría, de 11 de noviembre de 2020.

Ondorioz, kontuan hartuta 2020ko azaroaren 23ko Ogasun eta Ondarearen Lan Batzordearen aldeko irizpena.

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo

de Hacienda y Patrimonio, de 23 de noviembre de 2020.

Udal Osoko bilkurak honako erabakia hartu du

El Pleno Municipal adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Bakarra.-** Onartzea Isasi-Markeskoa jauregiaren erabilera-lagapenaren hitzarmena bost urtez luzatzea Udako Euskal Unibertsitateari, hau da, 2025eko azaroaren 28ra arte.

**Único.-** Aprobar la prórroga del convenio de cesión de uso del palacio Isasi-Markeskoa a la Universidad Vasca de Verano por cinco años, esto es, hasta el 28 de noviembre de 2025.

<u>Udal Aurrekontuko partiden arteko kreditu-transferentzien aldaketaren hogeita hirugarren espedientea.</u>

<u>Vigesimotercer expediente de modificación de créditos por transferencias entre partidas del Presupuesto municipal.</u>

2020. jardunaldirako Udal Aurrekontuari dagozkion partidetan izendatutako kredituak urriak izanik, ondoren zehazten diren kontzeptuengatik egin behar diren gastuak presakotzat eta premiazkotzat hartu dira.

Al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2020, se considera la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que se detallan.

Udal Aurrekontuaren kreditu-transferentzien hogeita hirugarren espedientearen

Vistos, la propuesta de Alcaldía sobre el Vigesimotercer Expediente de Transfe-

inguruan Alkatetzak egin duen proposamena, eta espediente horren inguruan kontu-hartzaile jaunak egindako txostena ikusita, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 29. artikuluak ezarritakoaren arabera,

Ondorioz, kontuan hartuta 2020ko azaroaren 23ko Ogasun eta Ondarearen Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Udal Osoko bilkurak honako erabakia hartu du

**ERABAKIA**

Udal aurrekontuko kontu sailen arteko Transferentzien Hogeita hirugarren espedientea ONTZAT EMATEA.

**LABURPENA KAPITULUKA**

**I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA**

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 2 | Gast. Ondas. Arrunt eta zerb. | 15.522,22 |

**Guztira gehikuntzen adina 15.522,22**

**II. KREDITUEN GEHIKUNTZA**

Kap Izendapena Euroak

rencias de crédito del Presupuesto Municipal y el informe del Interventor sobre el expediente realizado de conformidad con lo dispuesto en el artículo 29 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Hacienda y Patrimonio, de 23 de noviembre de 2020.

El Pleno Municipal adopta el siguiente

**ACUERDO**

APROBAR del Vigesimotercer expediente de Transferencias de crédito del presupuesto municipal cifrado en las siguientes cantidades:

**RESUMEN POR CAPITULOS**

**I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS**

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 2. | Gtos. En B. corr. y serv. | 15.522,22 |

**Total igual a los aumentos 15.522,22**

**II.CREDITOS EN AUMENTO**

Capít Denominación Euros

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 4 | Transferentzia arruntak | 15.522,22 | 4 | Transferencias corrientes. | 15.522,22 |

**Guztira gehikuntzen adina 15.522,22**

**Total igual a los aumentos 15.522,22**

## MOZIO-PROPOSAMENA

Datorren 2020ko abenduaren 4an beteko dira 50urte Roberto Perez Jauregi eibartarra eraila izan zela “Burgosko Prozesua” deitua izan zen mobilizazioetan. Epaiketa frankista hartan hiru eibartar ziren epaituak: Enrique Gesalaga, Jon Etxabe, eta Mario Onaindia. Azken honek, gainera, heriotza zigorraren kondena jaso zuen.

Euskal Herri osoko, baita Estatu espainiarreko eta Europan nahiz munduan zehar izan ziren mobilizazio bortitzak eragin zuten frankismoak atzera egitea bere asmoekin, eta epaiketa bera diktaduraren aurkako mobilizazio nagusiena bilakatu zen. Herriak borrokalari horiek ez erailtzea lortu zuen, baina Robertoren eta beste hainbat zaurituen odolarekin ordaindu zuen.

Honen harira, proposamen zehatza egitea nahi diegu Eibarko Udaleko alderdi politiko

## MOCIÓN-PROPUESTA

El próximo 4 de diciembre se cumplen 50 años del asesinato de Roberto Pérez Jauregi en las movilizaciones populares que se dieron con el llamado “Proceso de Burgos”. Ante aquel tribunal franquista comparecían tres eibarreses: Enrique Gesalaga, Jon Etxabe y Mario Onaindia. Este último, además, fue condenado a muerte.

Las fuertes movilizaciones en toda Euskal Herri, en el conjunto del Estado español y en Europa y otras zonas del mundo, consiguieron detener al franquismo en sus intenciones, convirtiéndose el propio juicio en la movilización más importante contra la dictadura. El Pueblo consiguió que a quellos luchadores no fueran asesinados, pero tuvo que pagarlo con la sangre de Roberto y otros muchos heridos.

Por ello, realizamos la siguiente propuesta

guztiei hurrengoko Udalbatzan honako Ebazpena har dezaten:

1.- Kontuan izanik gure Hiriaren kale, plaza eta toki publikoen nomenklaturaren ildoak adosteke eta ezartzeke daudela, ROBERTO PEREZ JAUREGI PLAZA izango da proposamen garrantzitsuenetako bat, eraila izan zen ingurua izendatzeko erabakia hartzerakoan, beraren jarrera eta bere erailketa direlako duela 50 urte Eibarko herri guztiak askatasunaren aldeko mobilizazioetan jasan zuen indar frankisten bortizkeri kriminalaren ordezkari.

2.- Monolito bat jarri erailketaren inguran, horretarako ideien konkurtso bat antolatuz partaide izatea nahi duten artista orori dei eginaz.

3.- Behin aurreko bi puntuak onartuak izan, eta osasun-egoerak horretarako aukera ematen badu abenduaren 3an Coliseo udal aretoan, Eibarko Memoria Taldeak antolatuta, aurreikusita dagoen ekitaldi publikoa egiteko, Udal ordezkari batek Ebazpen hau irakurriko du Roberto Perez Jauregiri eskainiko zaion omenandiaren esparruan.

a todas las fuerzas políticas del Ayuntamiento de Eibar, a fin de que tomen Resolución en el próximo Pleno Municipal:

1.- Considerando que la definición del tipo de nomenclaturade las calles, plazas y espacios públicos de nuestra Ciudad está pendiente de acordarse y resolverse, PLAZA ROBERTO PEREZ JAUREGI será una de las propuestas de mayor importancia para la cesión que se tome en la denominación del entorno donde fue abatido, dado que su actitud y asesinato representan la agresión criminal que todo el pueblo de Eibar sufrió a manos de las fuerzas franquistas hace 50 años en sus movilizaciones por la libertad.

2.- Instalar un monolito organizando para ello un concurso de ideas con llamamiento a todos los artistas que deseen participar.

3.- Una vez aprobados los dos puntos anteriores, y si la situación sanitaria lo permitiera y se celebrara el acto público organizado por Eibarko Memoria Taldea y previsto para el próximo 3 de diciembre en el salón municipal Coliseo, un representante municipal hará pública la presente Resolución en el marco del homenaje que se le dedicará a Roberto Pérez Jauregi.

**Alkatetzaren proposamena, dirulaguntzen Plan Estrategikoren eranskina aldatzeko eta enpresei, enplegagarritasuna eta kontratazioa hobetzeko ekintzengatik, dirulaguntzak emateko oinarriak onartzeko.**

**Propuesta de alcaldía de modificación del anexo del plan estratégico de subvenciones y de aprobación de las bases para la concesión de subvenciones a empresas por acciones de mejora de empleabilidad y contratación**

Ekonomia Garapenerako, Enplegurako eta Berrikuntzarako teknikariak egin duen proposamena **IKUSITA**, eta proposamen horrekin bat etorrita,

**VISTA** la propuesta presentada por la Técnica de desarrollo Económico, Empleo e Innovación, y de conformidad con la misma

Udal Osoko bilkurak honako erabakia hartu du

El Pleno Municipal adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**Aurrena:** Dirulaguntzen Plan Estrategikoa alda dezala eta enpresei enplegagarritasuna eta kontratazioa hobetzeko ekintzengatik ematen zaizkien dirulaguntzen ildoaren zenbateko gehitu 204.900 eurotik 269.900 eurora.

**Bigarrena:** Onetsi ditzala dirulaguntzen deialdia, oinarriak barne, agiri biok proposamen honi erantsitakoak.

**ACUERDO**

**Primero**: Que se modifique el Plan Estratégico de Subvenciones, aumentando el importe de la línea de subvenciones a empresas por acciones de mejora de empleabilidad y contratación de 204.900 € a 269.900 €

**Segundo**: Que se apruebe la convocatoria de las subvenciones, que incluyen las bases y que se adjunta a esta propuesta.

**Hirugarrena:** Izenda dezala espedientearen instruktore Ainhoa Romero andrea, Garapen Ekonomikorako, Enplegurako eta Berrikuntzarako teknikaria.

**Tercero**: Que se nombre a Ainhoa Romero, Técnica de desarrollo Económico, Empleo e Innovación instructora del expediente.

EIBARKO UDALA